

UHOLDEAK PREBENITZEKO TEKNIKARIA. 2020KO TESTA

ERANTZUN ZUZENA:	1 PUNTU
ERANTZUN OKERRA:	-1/3 PUNTU
DENBORA:	50 MINUTU

1. Zein arrotan dago Altzolako ur-emariaren neurketa-estazioa?

- a) Deban.
- b) Orian.
- c) Butroen.
- d) Egan.

2. Nork ematen du baimena lehorretik itsasorako isurketetarako Oria ibaiaren arroan?

- a) Kantauriko Ur Konfederazioak.
- b) Uraren Euskal Agentziak.
- c) Itsasertz Mugarteak.
- d) Aurreko erantzunetatik bat ere ez da zuzena.

3. Uraren Euskal Agentziaren Estatutuen arabera, eginkizun hauetako bat ez dagokio Uraren Euskal Agentziari. Zein da?

- a) Interes orokorreko obra hidraulikoak.
- b) Eremu Babestuen Erregistroaren antolaketa eta funtzionamendua.
- c) Lehorretik itsasorako isurketak egiteko baimena ematea.
- d) Aurreko guztiak Uraren Euskal Agentziaren eginkizunak dira.

4. EAEko emarien maparen arabera, Abusuko ur-emariaren neurketa-estazioan (1.000 km² inguruko arro-azalera), honako hau da, gutxi gorabehera, 100 urteko errepikatze-denborako emaria?

- a) 10 m³/s
- b) 200 m³/s
- c) 1.800 m³/s
- d) 10.000 m³/s

5. Kosten Legeak eta horren Erregelamenduak ezarritako igarotze-zortasuneko eremua, nolakoa izango da?

- a) Bost metroko zerrenda, itsasertzaren barruko mugatik lehor aldera neurtuta.
- b) Sei metroko zerrenda, itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren ertzeko barruko mugatik lehor aldera neurtuta.
- c) Hamar metroko zerrenda, itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren ertzeko barruko mugatik lehor aldera neurtuta.
- d) Sei metroko zerrenda, itsasertzaren barruko mugatik lehor aldera neurtuta.

6. Uraren arloko eskumenak EAeri transferituta daude. Zeren arabera?

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko 1/2006 Legearen arabera.
- b) 2007/60/EE Zuzentarauaren arabera.
- c) Uztailaren 12ko 297/1994 Dekretuaren arabera.
- d) Plan Hidrologiko Nazionalaren arabera.

7. Lehentasunezko fluxu-eremuari dagokionez (Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 9. artikulua), zein da baieztapen zuzena?

- a) Bat dator uholde-arrisku handiko eremuarekin 500 urteko errepikatze-denborako uraldirako.
- b) Bat dator huste biziko bidearekin 100 urteko errepikatze-denborako uraldirako.
- c) Eremu horretan 100 urteko errepikatze-denborako uraldiak sakonera- eta abiadura-irizpide jakin batzuk betetzen ditu.
- d) Uholde-arrisku handiko eremua eta huste biziko bidea batuz definitzen da, informazio historikoa eta geomorfologikoa erantsiz, hala badagokio.

8. Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 126 ter artikuluaen arabera, zein da baieztapen zuzena?

- a) Autobide, autobia, bide azkar eta errepide berri arruntetan eta trenbide-sarean zubiak, pasabideak eta zeharkako drainatze-obrak diseinatzean, bai eta babes zibila planifikatzeko oinarritzko instalazio eta zerbitzuetarako sarbidea ematen duten beste komunikazio-bide batzuk diseinatzean, huste biziko bidea ez da okupatuko lubetekin edo pasabideko egituraren estribuekin.
- b) Autobide, autobia, bide azkar eta errepide berri arruntetan eta trenbide-sarean zubiak, pasabideak eta zeharkako drainatze-obrak diseinatzean, bai eta babes zibila planifikatzeko oinarritzko instalazio eta zerbitzuetarako sarbidea ematen duten beste komunikazio-bide batzuk diseinatzean, lehentasunezko fluxu-eremua ez da okupatuko lubetekin edo pasabideko egituraren estribuekin.
- c) Huste biziko bidearen barruan ezingo da zutaberik jarri.
- d) Lehentasunezko fluxu-eremuaren barruan ezingo da zutaberik jarri.

9. Zein da, gutxi gorabehera, euskal kostaldearen luzera?

- a) 50 km
- b) 100 km
- c) 1200 km
- d) 250 km

10. Zer hartuko da kontuan gehieneko ur-goraldi arruntaren emaria definitzeko?

- a) Informazio hidrologiko nahikoa dagoen ibilgu-tarteetan, gehieneko ur-goraldi arruntaren emaria izango da urteko bat-bateko gehieneko emarien bataz bestekoa bere erregimen naturalean. Horretarako, dauden datu-serieak hartuko dira kontuan eta ahalik eta urte gehien hartuko duen aldia hautatuko da, beti ere ondoz ondoko hamar urtetik gorakoa.
- b) Informazio hidrologiko nahikoa dagoen ibilgu-tarteetan, gehieneko ur-goraldi arruntaren emaria izango da urteko bat-bateko gehieneko emarien bataz bestekoa bere erregimen naturalean. Horretarako, dauden datu-serieak hartuko dira kontuan eta ahalik eta urte gehien hartuko duen aldia hautatuko da, beti ere ondoz ondoko berrogeita hamar urtetik gorakoa.
- c) Aurreko paragrafoa aplikatzeko informazio hidrologiko nahikoa ez badago ibilgu-tarteetan, gehieneko ur-goraldi arruntaren emaria zehazteko metodo geomorfologikoak baino ez dira erabiliko.
- d) 2,33 urteko errepikatze-denborako uraldia.

11. Uraldi baten iragate kasuan, sekzio batean honako hau sortzen da:

- a) Lehenengo, gehieneko abiadura, gero gehieneko emaria eta, azkenik, gehieneko altuera.
- b) Lehenengo, gehieneko emaria, gero gehieneko altuera eta, azkenik, gehieneko abiadura.
- c) Lehenengo, gehieneko altuera, gero gehieneko abiadura eta, azkenik, gehieneko emaria.
- d) Aurreko erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

12. Hauek dira Euskal Autonomia Erkidegoko ur-masen gaineko presio garrantzitsuenak?

- a) Ur-erauzketekin lotutakoak.
- b) Hiriko eta industriako isurketekin eta lurgaineko ur-masen aldaketa morfologikoekin lotutakoak.
- c) Ur-erauzketekin eta presio lausoekin lotutakoak.
- d) Presio lausoekin lotutakoak.

13. Jarraian zehaztutako zein errege-dekretu bidez txertatu da 2007/60/EE Zuzentaraua Estatuko legerian?

- a) 903/2010 Errege Dekretuaren bidez.
- b) 1/2001 Errege Dekretuaren bidez.
- c) 9/2009 Errege Dekretuaren bidez.
- d) 9/2011 Errege Dekretuaren bidez.

14. Non daude jasota uholde mekanismoak?

- a) Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoko UAKPea (Uholde-arriskua kudeatzeko plana).
- b) Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoko UAAEa (Uholde-arriskuen atariko ebaluazioa).
- c) Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoko arriskugarritasun- eta arrisku-mapetan.
- d) Aurreko hiru dokumentuetako batean ere ez.

15. Arriskugarritasun- eta arrisku-mapak zenbat denboraz egongo dira kontsulta publikoan jarrita?

- a) Hiru hilabetez, gutxienez.
- b) Hiru hilabetez, gutxienez, eta sei hilabetez, gehienez ere.
- c) Sei hilabetez, gutxienez.
- d) Ez dira, nahitaez, kontsulta publikoan jarri behar.

16. Froude zenbakiari dagokionez, zein da baieztapen zuzena?

- a) Dimentsio gabeko zenbaki bat da eta fluido baten gainean eragina duten inertzia- eta grabitate-indarren arteko erlazioa adierazten du.
- b) Dimentsio gabeko zenbaki bat da eta flotazio- eta inertzia-indarren arteko erlazioa adierazten du.
- c) Bat baino handiagoa da korrante subkritikoen kasuan.
- d) Fluido baten turbulentziarekin dago lotuta.

17. Zer neurtzen du radar meteorologiko batek?

- a) Erreflektibitatea.
- b) Prezipitazioa
- c) Temperatura
- d) Atmosferako hezetasuna.

18. Toki hauetako bat ez dago Ramsar Hitzarmenean sartuta. Zein da?

- a) Añanako Caicedo-Yusoko aintzira eta gesaltza.
- b) Txingudiko badia.
- c) Uribarriko Mendixurreko muturra.
- d) Aurreko toki horiek guztiak daude sartuta Ramsar Hitzarmenean.

- 19. Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoaren 42. artikulua arabera, lurzoru urbanizatuaren oinarritzko egoeran baldin badago lurzorua, Lurzoruari eta Hiri Errehabilitazioari buruzko testu bateginaren 21. artikulua xedatutakoarekin bat etorrita, pertsonak eta ondasunak babesteko egiturazko babes-jarduerak garatu behar direnean, nolakoa izango da babes maila?**
- a) 500 urteko errepikatze-denborakoa.
 - b) 50 urteko errepikatze-denborakoa.
 - c) Uholde Arriskua Kudeatzeko Planak kasuan kasuko herrirako ezartzen duena.
 - d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.
- 20. Honako hauetatik, zein da EAEko Ingurumena Babesteko Lege Orokorra?**
- a) 3/1998 Legea.
 - b) 1/2006 Legea.
 - c) 42/2007 Legea.
 - d) 2001/42/EE Zuzentaraua.
- 21. Hauetatik zein unitate hidrologikok osatzen du erkidego barneko arro bat?**
- a) Lea unitate hidrologikoak.
 - b) Agüera unitate hidrologikoak.
 - c) Zadorra unitate hidrologikoak.
 - d) Ega unitate hidrologikoak.
- 22. Zer alde dago ebapotranspirazio potentzialaren eta ebapotranspirazio errealaren artean?**
- a) Bat ere ez. Kontzeptu baliokideak dira.
 - b) Potentziala ereduaren arabera kalkulaturakoa da, eta errealak, instrumentazio bidez zuzenean neurtutakoa.
 - c) Hezetasun nahikoa badago gerta daitekeena da potentziala, eta eremuko hezetasun-egoerari dagokiona da errealak.
 - d) Potentziala ebapotranspirazio handieneko urteari dagokiona da, eta errealak, berriz, urte jakin bati dagokiona.
- 23. EAEko isurialde kantauriarrean, zein da ebapotranspirazio potentzialaren balioen maila tipikoa?**
- a) 200-300 mm/urtean.
 - b) 800-1000 mm/urtean.
 - c) 2000-2500 mm/urtean.
 - d) 3000-4000 mm/urtean.

24. Sekzio batean, zeri esaten zaio gastu-kurba?

- a) Abiadura eta altueraren arteko erlazio unibokoari.
- b) Altuera eta emariaren arteko erlazio unibokoari.
- c) Emariaren eta abiaduraren arteko erlazio unibokoari.
- d) Emariaren eta higaduraren arteko erlazio unibokoari

25. Zer kalkulatzten da kurba zenbakiaren metodoarekin?

- a) Gertaldi batean gertatzen den jariatzea.
- b) Urte hidrologiko batean gertatzen den jariatzea.
- c) Urte hidrologiko batean gertatzen den ebapotranspirazioa.
- d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

26. EAEn uraldiak zaintzeko eta aurreikusteko estazioen baterako sarea dago osatua. Zenbat estazio daude, gutxi gorabehera, sare horretan?

- a) 40.
- b) 80.
- c) 130.
- d) 300.

27. Jarraian adierazitako tekniketako batek ez du balio prezipitazioaren interpolazio espaziala egiteko. Zein da?

- a) Thiessen-en poligonoen metodoa.
- b) Kriging-en metodoa.
- c) Kalman-en metodoa.
- d) Distantziaren alderantzizko funtzioa erabiltzen duen interpolazio metodoa.

28. Jauzi hidraulikoari dagokionez, adierazi zein den baieztapen zuzena?

- a) Erregimen azkarretik erregimen motelerako trantsizioa, etengabeko mugimenduan, non energia-disipazio handia gertatzen den eta fronte malkartsu oso zurrunbilotsu bat agertzen den.
- b) Mugimendu-kantitatearen eta jarraitutasunaren ekuazioak aplikatuta lortzen dira jauziaren sakonerak uretan gora eta urtean behera.
- c) Bere egoerarik egonkorrena (jauzi geldikorra) 4.5 eta 9 arteko Froude zenbakietan gertatzen da.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

29. Ibaiertzetako basorik gabeko ibilgu natural batean, jarraian adierazitako balioetatik zein izango litzateke Manning zenbakiaren oiko balioa:

- a) $0,10 \text{ s/m}^{1/3}$
- b) $0,01 \text{ s/m}^{1/3}$
- c) $0,16 \text{ s/m}^{1/3}$
- d) $0,30 \text{ s/m}^{1/3}$

30. Sektore Publikoko Kontratuen Legearen arabera, prezioari dagokionez, zein da erantzun zuzena?

- a) Ulertuko da prezioan jasota dagoela balio erantsiaren gaineko zergaren kontzeptuan ordaindu beharreko kopurua; kopuru hori ez da, inolaz ere, partida independente gisa adieraziko da.
- b) Ulertuko da prezioan jasota dagoela balio erantsiaren gaineko zergaren kontzeptuan ordaindu beharreko kopurua; kopuru hori, nolanahi ere, partida independente gisa adieraziko da.
- c) Ez da ulertuko da prezioan jasota dagoela balio erantsiaren gaineko zergaren kontzeptuan ordaindu beharreko kopurua.
- d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

31. Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen arabera, noiz egongo da zuzeneko diskriminazioa?

- a) Pertsona bat, bere sexuagatik, beste pertsona bat baino modu txarragoan tratatzen denean.
- b) Pertsona bat sexuarekin zuzenean loturik dauden inguruabarrak direla-eta –haurdun egonda edo ama izanda, esaterako– beste pertsona bat baino modu txarragoan tratatzen denean.
- c) Lanean jazarpen sexista dagoenean.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

32. Garraio publikoko zerbitzu guztietan inprimakiak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira baldin eta?

- a) Euskal Herria badute helmuga.
- b) Euskal Herritik abiatzen badira.
- c) Euskal Herria badute abiapuntu eta helmuga.
- d) Estatua badute abiapuntu eta Euskal Herria helmuga.

33. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoko Euskal Autonomia Erkidegoko Barne Arroetan, jarraian adierazitako erakundeetako batek ez du parte hartzen UAKPren tramitazioan. Zein da?

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko Babes Zibilerako Batzordea.
- b) Euskal Autonomia Erkidegoko Uraren Kontseilua.
- c) Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordea.
- d) Ihobe.

34. Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoari buruzko Araudiaren 14. eranskinaren arabera, Manning zenbakia honako faktore hauen mende dago:

- a) Gainazalaren zimurtasuna, landaredia, sekzioaren irregulartasunak, meandroak, ibilguaren forma eta zabalera, oztopoak, sakonera eta emaria, eta hondoko jalkinen eta jalkin esekien garraioa.
- b) Gainazalaren zimurtasuna, landaredia, sekzioaren irregulartasunak, meandroak, ibilguaren forma eta zabalera, oztopoak, eta hondoko jalkinen eta jalkin esekien garraioa.
- c) Gainazalaren zimurtasuna, landaredi potentziala, sekzioaren irregulartasunak, meandroak, ibilguaren forma eta zabalera, oztopoak, eta sakonera eta emaria.
- d) Gainazalaren zimurtasuna, landaredi potentziala, sekzioaren irregulartasunak, meandroak, ibilguaren forma eta zabalera, oztopoak, eta hondoko jalkinen eta jalkin esekien garraioa.

35. Nori dagokio Ebroko Plan Hidrologikoa onartzea?

- a) Legebiltzarrari, lege bidez.
- b) Ingurumenaren arloko eskumenak dituen sailari, ministerio agindu bidez.
- c) Espainiako Gobernuari, errege-dekretu bidez.
- d) Ebroko Demarkazio Hidrografikoko Agintari Eskudunen Batzordeari.

ORDEZKO GALDERAK

36. Marruskadura dela-eta ibai batean gertatzen den energia galera kalkulatzeko, formula hauetako zein erabiliko zenuke?

- a) Fórmula de Manning.
- b) Fórmula de Exner.
- c) Fórmula de Newman.
- d) Fórmula de Michaud.

37. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen arabera, epe-zenbaketari dagokionez, zein ba baieztapen zuzena?

- a) Legez edo Europar Batasuneko zuzenbidean beste zenbaketarik adierazi ezean, epeak egunetan jartzen badira, egun naturalak direla ulertuko da.
- b) Legez edo Europar Batasuneko zuzenbidean beste zenbaketarik adierazi ezean, epeak egunetan jartzen badira, egun naturalak direla ulertuko da, alde batera utzita igandeak eta jai-egunak.
- c) Legez edo Europar Batasuneko zuzenbidean beste zenbaketarik adierazi ezean, epeak egunetan jartzen badira, egun baliodunak direla ulertuko da, alde batera utzita, larunbatak, igandeak eta jai-egunak.
- d) Epea hilabetetan edo urtetan jartzen bada, egintza jakinarazi edo argitaratu den egunetik bertatik aurrera zenbatuko da.

38. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen arabera, prebentziorako eskuordeen eskumenak dira honako hauek:

- a) Enpresako zuzendaritzarekin elkarlanean aritzea, prebentzio-ekintza hobetzeko.
- b) Lan-arriskuak prebenitzeko arautegia betetzeko, langileen lankidetzaren sustatzea zein bultzatzea.
- c) Lan-arriskuak prebenitzeko arautegia bete dadin, zaintza eta kontrol-lanak egitea.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

39. Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 372018 Lege Organikoaren arabera, adingabe baten datuen tratamendua berak emandako adostasunean oinarritu ahal izango da. Horretarako, baina, zenbat urte eduki beharko ditu?

- a) 16 urte baino gehiago.
- b) 14 urte baino gehiago.
- c) 18 urte baino gehiago.
- d) 13 urte baino gehiago.

40. Uholde Arriskua Kudeatzeko Planak direla-eta, zein da baieztapen zuzena?

- a) Autonomia-erkidego bakoitzaren esparruari dagozkio.
- b) Euskadin bi daude: Kantauriko eta Mediterraneoko isurialdekoak.
- c) Haien lurralde-eremua eta plan hidrológicoena bat datoz.
- d) Zuzenak dira b) eta c) erantzunak.

